

M. U.-k 10 urte bete ditu eta nabarmen sendotu da, ikasle-kopurua % 67 handituta

2007/08/05

Mondragon Unibertsitateak dagoeneko 10 urte bete ditu, 1997an sortu baitzen. Debagoienan askoz lehenagotik ari ziren hiru irakaskuntza-kooperatibak bat eginda sortu zen Unibertsitatea: **Mondragon Goi Eskola Politeknikoa Jose Maria Arizmendiarrrieta Kooperatiba Elkarteak, ETEO Kooperatiba Elkarteak eta Irakasle Eskola Kooperatiba Elkarteak**. Ikastetxe horien ibilbidea gerraostean hasi zen, 1943an, Arizmendiarrrietak Arrasateko lanbide-eskola sortu zuenean. Bere proiektu kooperatiboa izango zenaren ernamuina izan zen lanbide-eskola hura.

Gaur egun, **Mondragon Unibertsitateak** bere jarduera hiru ezagutza-alarretan garatzen du. Honako hauek dira: Zientzia eta Teknika arloa (**Goi Eskola Politeknikoan**), Enpresa arloa (**Enpresa Zientzien Fakultatean**) eta Giza arloa (**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean**).

Irakaskuntza-eredu propioa eta berezia izateari esker, **Mondragon Unibertsitatea**, hamar urteko lanaren ostean, erabat sendotuta dago, eta sendotasun horrek hiru ezaugarri nagusi ditu: lotura estua enpresarekin, ikasleen enplegarritasun handia eta, azkenik, kalitateko prestakuntza, ezagutza tekniko-zientifikoez gain, balioetan oinarritutako irakaskuntza ere eskaintzen duen ereduari esker.

Uste osoa dugu **MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN 10. urteurrena** aukera paregabea dela nondik gatozen, erdietsitako lorpenak eta etorkizunerako ilusioak gogoratzeko. Eta ez dugu guk bakarrik ospatu nahi, ezta hain atxikita omen gauden Euskadiko industria-bihotzeko leku horietan isolaturik ere.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA osatzen dugun langile guztiok gure proiektua ahalbidetu duten guztiokin ospatu nahi dugu urteurrena: pertsona, enpresa, erakunde eta, oro har, gizarte osoarekin, zehaztasunetan sartu gabe.

Hamar urteko hazkundera

Unibertsitateak, 1997an sortu zenetik, bikoiztu egin du hezkuntza-eskaintza: hasieran 13 titulazio eskaintzen zituen eta gaur egun 25 titulazio, ingeniari, enpresa-kudeaketa, irakasle-eskola, humanitate eta komunikazioaren alorretakoak.

Gaur egun, gure Unibertsitateak graduko eta graduondoko 4.000 ikasle inguru dauzka. Haietatik, 3.339 ikasle unibertsitate-ikasketak egiten ari dira, hau da, % 67,38 gehiago 1997ko kopuruarekin alderatuta. Gainera, EAEko gainerako Unibertsitateetan matrikulatuta dauden ikasle guztiak kontuan hartuta, ikasleen % 6,4 MUn daude, hau da, sortu zeneko kopuruaren ia bikoitza, duela hamar urte EAEko ikasleen % 3,8k aukeratu baitzuten Mondragon Unibertsitatea ikasketak egiteko.

Horrez gain, MUn ikasi nahi baina diru-zailtasunak dituztenei laguntzeko helburuz, Bekabide programa jarri dugu abian. Programa horren bidez, ikasleak bere ikasketen finantzaketa bermatu dezake.

Hamar urteko ibilbidean zehar, Mondragon Unibertsitateak berezko hezkuntza-eredua sortu du –Mendeberri du izena–. Eredu horrek honako gaitasun hauek lantzen ditu ikasleengan, besteak beste: autonomia, komunikazio-gaitasunak, talde-lana, lidergoia eta erabakiak hartzea. Horrez gain, Mendeberrik eleaniztasuna eta Teknologia Berrien erabilpena bultzatzen ditu. Hezkuntza-eredu erabat berritzailea da, Europako Goi Mailako Hezkuntzako Esparrutik datozen orientabideekin bat datorrena. Eredu hori apurka-apurka finkatu da Unibertsitatean.



Hala, 2002an, Mendeberrri ereduaren oinarri zuten titulazioak 3 besterik ez ziren. Gaur egun, berriz, 14 dira ereduari jarraitzen diotenak, guztien % 60.

Irakasleei dagokienez, % 62k erabiltzen dute ereduaren gaur egun eta, 2002an, sortu zenean, % 20k besterik ez zuten erabiltzen. Mendeberrri ereduaren metodologiak ikasleen eta irakasleen arteko hurbiltasuna sustatzen du. Ikasleak protagonismo handiagoa hartzen du ikasteko prozesuan, eta tutorearen eginkizuna orientazioa da.

Bestalde, Unibertsitatearen berezko balio erantsietako bat prestakuntza akademikoaren eta enpresako prestakuntzaren arteko erlazio berezia da. Urtean 500 bat ikasleak aukeratzen dute ikasketak eta lana batera egitea. Horri esker, praktikak egin ditzakete enpresetan, ikastetxeetan eta erakundeetan.

Halaber, karrera-bukaerako proiektuak ere funtsezko elementuak dira, Unibertsitatearen, ikasleen eta enpresaren arteko lotura zuzena bermatzen baitute. Hala, 2007an, karrera-bukaerako proiektuak eta enpresako praktikak egin zituzten ikasleak 895 izan ziren, 1997an baino askoz ere gehiago, urte hartan 464 ikasleak egin baitzituzten proiektuak eta praktikak.

Mondragon Unibertsitateak 300 enpresaz osatutako laguntzaile-sarea dauka eta ikasleak horietan guztietan sartu daitezke praktika-programak betetzeko.

Enplegarritasun handia

Tituludunen enplegarritasun handia da Unibertsitatearen beste ezaugarri nagusietako bat. Izan ere, Mondragon Unibertsitateko ikasleen enplegarritasuna % 98koa da. Ikasle horiek, batez beste, ikasketak amaitu eta hiru hilabete igaro aurretik aurkitzen duten lana, gehienek beren ikasketekin zerikusi zuzena duen lanbidean. Datu hori bikaina da eta etengabea izan da Mondragon Unibertsitatea jaio zenetik. Horri esker, gure erakunde akademikoa Europako estandarren oso gainetik dago alde horretatik.

Orobat, azpimarratu beharra dago euskaraz eskaintako prestakuntzak etengabeko hazkundea izan duela 10 urteotan, ikasleen eskariak egin duen bezalaxe. Hala, ikasturte honetan ikasketak euskaraz egitea aukeratu duten ikasleak % 79 dira Mondragon Unibertsitatean.

Bestalde, MUK trukatzeko programak ditu Europako, Iparramerikako eta Latinoamerikako ehun bat unibertsitateekin, nazioarteko esperientzia erraztu eta ikasleen zein irakasleen mugikortasuna bultzatzeko. Azken ikasturtean, ia berrehun ikasleak egin dituzte ikasketak, praktikak edo proiektuak atzerriko herrialde batean.

Graduondoko ikasketak

Graduondoko ikasketak eta etengabeko prestakuntza, Unibertsitatearentzat, ezagutzaren transmisioa gauzatzeko bideak dira eta bi helburu nagusi dituzte: enpresen berrikuntza aktiboki lagundu eta irakasleen ezagutzak etengabe eguneratzea. Graduondoko eta prestakuntzako ikasketetan azpimarratzekoa da, halaber, ikasketak praktikakoak direla neurri handi batean eta ikaslearen eta irakaslearen arteko elkarrekin handia dagoela. Gainera, master programa guztien bukaeran enpresan proiektu bat egitea aurreikusita dago.

MUko etengabeko prestakuntzako eta graduondoko eskaintzak 25 titulu propio barne hartzen ditu –masterrak eta aditu tituluak–, baita iraupen ezberdineko hainbat ikastaro ere. Ikasketak horiek sei ezagutza-erlotan banatuta daude: enpresa-kudeaketa eta -zuzendaritza; industria-antolamendua eta -kudeaketa; industria-berrikuntza eta -garapena; informazio- eta komunikazio-teknologiak; lidergoa eta, azkenik, irakaskuntza. Azken urtean guztira 3.544 profesionalek egin dituzte etengabeko prestakuntza-jarduerak eta, guztira, 20.000 eskola-ordu hartu dituzte.

MU jaio zenean ez zegoen graduondoko tituluen eskaintzarik. Urteak aurrera joan ahala, berriz, 1998ko 3 tituluetatik gaur egungo 25 tituluetara handitu da eskaintza.

Ikerkuntza bultzatzea

Mondragon Unibertsitateak azken urteotan bultzaturiko asmoetako bat irakasleen ikerkuntza izan da. Horren erakusgarria jarduera

horretara zuzendutako inbertsioaren etengabeko hazkundea izan da, 1997. eta 2007. urteen artean sei halakotu egin baita zenbatekoa. Gaur egun, irakasleek beren arduraldiaren % 34 ikerkuntzan ematen dute, duela hamar urte baino % 22 gehiago.

Gaur egun, 124 doktoregai egiten ari dira ikerkuntza proiektuen hirugarren zikloa. Kopuru hori handitzen joan da etengabe 1999tik, urte hartan sortu baitziren Unibertsitateko lehenengo 5 doktoregaiak.

Era berean, gogoratu beharra dago MUK, MCCrekin eta Administrazio Publikoekin batera, elkarlaneko ikerkuntzaren kontzeptu berria sortu duela. Proiektu hori Garaia Berrikuntza Gunean gauzatu da. Garaia duela gutxi inauguratu da eta, bertan, Unibertsitateko, Teknologia Zentroetako eta enpresetako I+G unitateetako zientzialariek eta ikertzaileek bat egin eta elkarerraginean dihardute.

Ilido beretik, Mondragon Unibertsitateak ikerkuntza estrategikoa gauzatzeko lau unibertsitate-laborategi dauzka dagoeneko, Garaian kokaturik.

Etorkizunerako Planak

Mondragon Unibertsitateak aurrera jarraitzen du bere unibertsitate-proiektua finkatzeko eta berezko unibertsitate-eredua sendotzeko bidean. Hala, 2010. urteari begira planteatu dituen helburu nagusiak honako hauek dira: hezkuntza-eredua garatzea, unibertsitatearen, enpresaren eta erakundearen arteko harremanak sakontzea, espezializazioa, irakasleen garapena eta internazionalizazioa.

Europako sistemara egokitzeko helburuari dagokionez, Mondragon Unibertsitateak aurreikusita dauka Mendeberrri proiektua titulazioen % 100etan erabiltzea, baita irakaskuntza-prozesuan zehar ekintzailtza indartzea eta e-learninga garatzea ere.

Bestalde, prestakuntza akademikoak eta enpresako prestakuntzak osatutako binomioari eustea beste lehentasun nagusietako bat da eta izango da Unibertsitatearentzat; horrek, gainera, hezkuntza-eredua aurrera eramaten lagunduko dio. Enplegua bideratuta egotea ere beste ezaugarri bat da Unibertsitatearentzat, bere ikasleen enplegarritasun osoa lortzeko helburua baitu. Era berean, Mondragon Unibertsitateak enpresa-ekimen berriak sortzea erraztuko du, bere baitatik elikatzen duen ekintzaile-kulturarekin bat baitator.

Mondragon Unibertsitatearen plan estrategikoaren bigarren erronka nagusia Unibertsitateak enprekin eta erakundeekin dituen loturak areagotzea da. Helburu horrekin, erakundeak sendotu egingo ditu harremanak, bai MCCrekin baita beste enpresa, erakunde eta enpresa-elkarte batzuekin ere, eta haien eskarien ezagutza sakonduko du, helburu argi bat duela: lan-merkatuaren premia errealei erantzutea.

Horrez gain, Unibertsitateak bere ikasleen mugikortasuna sustatuko du, bai hirugarren zikloetan, bai egonaldietan, baita enpresako praktiketan ere. Bestalde, irakasleen mugikortasuna ere suspertuko du, nazioarteko ikerkuntza-taldeetan parte hartzea bultzatuz. Azkenik, titulazio bikoitzak garatzea eta atzerriko unibertsitateekin aliantzak egitea ere MUren erronkak dira, internazionalizazioaren alde egindako apustuaren ondorioz planteatuak.

Bestalde, I+Gren alorrean, Unibertsitateak ondoko helburu hauek ditu: ikerkuntza-jarduera areagotzea, nazioarteko bikaintasun-sare eta -taldeetan parte-hartze handiagoa izatea eta ikerkuntza-jarduera enpresen eta erakundearen beharrei begira bideratzea.

Unibertsitatearen plan estrategikoan jasotako beste helburuetako bat irakasleen garapena da. Helburu horri begira, erakunde akademikoak irakasleen prestakuntza hezkuntza-ereduari egokitzen jarraitu eta irakasleek atzerrian ikasi eta ikertzeko egin ohi dituzten egonaldiak indartuko ditu.

X. Urteurreneko Ekitaldiak

Mondragon Unibertsitateak hamargarren urteurrena ospatuko du. Duela hamarkada bat, 1997ko maiatzaren 30ean, Legebiltzarrak "Mondragon Unibertsitatea Aitortzeko Legea" onartu zuen. Hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dira. Abiapuntua prentsurreko hau eta memoria bat aurkeztea izango da. Memoria izen handiko bertsolariek lagunduta idatzi da eta Unibertsitateak hamar urteotan izandako eboluzioa jasotzen du, labur-labur.

Horrez gain, uztailaren 5ean, 18:30ean, erakunde-ekitaldia izango da, Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria buru dela, Mondragon Unibertsitatearen hamar urteko bizitza ospatzeko.

Bukatzeko, ekainetik abendura bitartean, bi hitzaldi-ziklo izango dira. Batak Ekintzailtza izango du aztergai eta besteak, berriz, Berrikuntza. Era berean, Mondragon Unibertsitateko ikasleek kontzertu batez gozatu ahal izango dute udazkenean, beraiek esku hartuta antolatuko baita.